

*Getxo Bizia herri plataformak ondorengo mozioa aurkezten du, otsailaren 24ko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.*

## **EUSKAL HERRIA EUSKALDUNTZEKO HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA**

Euskara da Euskal Herriaren nazio izaeraren ardatza eta nazio eraikuntzaren osagai nagusia.

Baztertze prozesu luze baten ondorioz, gaur egun, Euskal Herrian, euskarak egoera minorizatua bizi du.

Euskararen gabezia eta ahulezia, ordea, ez da patuaren emaitza edo euskaldunen utzikeriaren ondorio. Zapalkuntza historiko baten emaitza da. Espainia eta Frantziako estatuek historian zehar Euskal Herriaren, euskal kulturaren eta euskararen aurka bide eta bitarteko ugari erabiliz (indarkeria, legeak, debekuak, administrazioa, eskola, hedabideak...) bideratu duten errepresioaren ondorio dira.

Frantziako eta Espainiako Estatuek gaztelaniaren eta frantsesaren motibazioa, jakin beharra eta erabilera bultzatzen dituzte jendartearen arlo guztietan eta bi hizkuntza horien estatus ofizialek euren herritarren hizkuntz eskubide guztiak —indibidualak eta kolektiboak— babestu egiten dituzte euren estatuen lurralde osoan.

Euskal Herriak ez du Estatu burujaberik. Euskara ez da ofiziala bere lurralde osoan eta ofizial den eremuetan ere, ofizialtasun asimetrikoa du; ondorioz, euskaldunen hizkuntz eskubide indibidual eta kolektiboak egunero urratzen dira.

Gaur egun Euskal Herrian ezartzen ari diren hizkuntza politikarako ereduak zerikusi handia dute euskararen erabilerak eta normalkuntzak jendartearen aurrera egin ezin izatearekin.

Honako hauek dira bi ereduok:

### *1. Galtzeko hizkuntza politikaren ereduak.*

Euskara galtzera behartzen duen hizkuntza politika suntsitzailea da: Euskal Herria bera desagerraraztea du helburu; bere ezaugarriak Euskal Herriaren asimilazioa, hizkuntz kolonizazioa eta kultur ordezkapena dira.

### *2. Menpeko hizkuntza politikaren ereduak.*

Euskara erdaren menpean uzten duen hizkuntza politika menperatzailea da; bere ezaugarriak dira euskararen mendekotasuna, bi Estatuen hizkuntzen nagusitasuna eta euskararen ordezkapen prozesua atzerabidean jartzeko aukera ukatzea.

Egoera honen aurrean, honako hau da Getxo Bizia herri plataformaren gogoeta:

Batetik, euskara galtzeko politika munduko kultur aniztasunaren aurkako eraso da.

Bestetik, euskararen egoera minorizatua ezin da gainditu menpeko hizkuntza politikekin. Gainera, ezintasun hori indartu egiten da globalizazio uniformatzailearen testuinguruan.

Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntza politikarako ereduak, beraz, agortuta daude eta eredu aldaketa ezinbestekoa da.

Euskararen berreskurapen prozesua irabazpidean jartzeko, eta prozesu horretan, benetako inflexio puntua ekartzeko, ezinbestekoa da hizkuntza politikaren eredu berria:

- Euskara berreskuratzeko hizkuntza politika nazionala eta burujabea bideratzeko;
- Euskal hiztungoaren lurraldea Euskal Herriak eta bertan gauzatzen diren hizkuntz funtzio sozial guztiak osatzen dutela finkatzeko;
- Hizkuntza politika nazionalaren gauzapean mailakatua burutzeko, tokian tokiko ezaugarrien eta baldintzen araberrako erritmoan, beharrezko azpiegitura eta baliabideekin, helburuak lortu arte;
- Euskal Herria euskalduntzeko herri gogoa, kontzientzia eta borondatea sustatzeko;
- Euskararen erabilera osoa eta jarraitua izateko eskubidea gauzatzeko bere lurralde osoan, eta hizkuntz komunitateen arteko berdintasun printzipioa bultzatzeko;
- Herritar eleaniztunez osatutako Euskal Herri euskalduna lortzeko;
- Hizkuntza politika berria ez dela inposaketa adierazteko, lorpen demokratikoa baizik. Euskararen normalkuntzan ere, Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Hizkuntza politika berriak euskal hiztun komunitate osoarentzat berdintasunezko estatusa eskatuko du; hau da, estatus politikoan, juridikoan eta soziolinguistikoan gaztelaniak eta frantsesak euren lurraldeetan duten pareko egoera lortzeko eskubidea aldarrikatuko du. Euskaldunen hizkuntz eskubide indibidualak eta kolektiboak bermatuko ditu.

Euskal Herria euskalduntzeko prozesuan, hizkuntza politika berriak mugarrria edo inflexio puntua jarriko du, ezinbestez eta lehentasunez gauzatu beharrekoea, euskararen normalkuntza osoaren prozesua irabazpidean jartzeko. Eta horretarako neurriak eta estrategiak ziurtatuko ditu.

Inflexio puntuan zehazten diren zazpi lan-ildoen multzoak gutxieneko izaera du.

Hizkuntza politika berria gauzatzeko bide bezala, egokia eta zuzena litzateke Euskal Herria euskalduntzeko prozesuaren alde dauden indarren artean gutxieneko akordioa lortzea, indarrak biltzea eta estrategia bat adostea. Euskararen berreskurapen osoa ezin da bazterrean utzi gatazka politikoa konpondu arte. Getxo Biziaren ustez, euskararen normalkuntza osoaren gaiak eztabaida politikoaren erdi-erdian egon behar dute, eta guk horren aldeko konpromisoa hartzen dugu.

Horiek horrela, honako MOZIOA aurkezten dugu udal osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1. Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntza politikarako ereduak agortuta daude. Ez dute Euskal Herria euskalduntzeko balio. Beraz, eredu aldaketa ezinbestekoa denez, Euskal Herria euskalduntzeko hizkuntza politika berria abian jartzea derrigorrezkoa dela onartzen du Getxoko Udalak.
2. Getxoko Udalak, Euskal Herria euskalduntzeko prozesuaren inflexio puntuan aurkitzen garela aldarrikatzen du; era berean, euskal hiztun komunitatea berrosatzeko prozesuan urrats zehatz eta atzeraezinak ematea ezinbestekoa dela adierazten du.
3. Bizi dugun inflexio puntu honetatik abiatuz, Euskal Herria euskalduntzeko prozesuak, honako zazpi oinarri hauetan eragin beharko duela aldarrikatzen du Udal honek:
  - Euskara Euskal Herri guztian hizkuntza ofiziala izatea,
  - Belaunaldi berrien euskalduntasuna bermatzea, bizigune euskaldunak bermatuz,
  - Udalerrri euskaldunen garapen iraunkorra lantzea,
  - Administrazio eta zerbitzu publiko guztien euskalduntzea,
  - Lan esparrua, eta bereziki enpresa pribatua euskalduntzeko baliabideak jartzea,
  - Hedabideak eta kultur produkzioa euskara lehenestea, eta azkenik
  - Bide hau guztia egiteko beharrezkoak diren baliabideak (ekonomikoak eta azpiegitura mailakoak) bermatzea.
4. Getxoko Udalak, eztabaida orokor hau bideratzeko konpromisoaz gain, euskalduntze prozesua bultzatzeko konpromisoa hartzen du.
5. Azkenik, aurkitzen garen inflexio puntu hau baliatuz, bai eztabaidan, zein harturiko ebazpenen garapenean, partaide aktibo izateko eskaria eta eskaintza egiten die Udal honek bai herritarrei bai eragileei ere.

Getxon, 2006ko otsailaren 17an.